

**2013KO MAIATZAREN 23AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya Gonzalez
Aitor Larburu Izaguirre
Asier Sarriegui Zumarraga
Cecilia Herrador Garin
Idoia Baztarrika Prieto
Aitor Aldasoro Iturbe
M^a Luisa Valles Fernandez
Leire Artola Ugalde
Iñigo Arrese Artabe
Encarna Arrieta Telleria
Eva Diaz del Rio
Alfonso Segade Gonzalez
Ana María Crespo Blanco
Josi Insausti Mujika
Julio Herreros Serna
Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2013ko martxoaren 7ko aktaren onespena.

2013ko martxoaren 7ko aktaren berri eman ondoren, Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) adierazi du, Andre Mari kaleko zabor-puntua lehen zegoen tokira bueltatzeko eskatu zutela eta hori ez dela aktan jasotzen. Alkateari galdetu dio ea jatorrizko tokira edukinontziak itzultzeko asmorik dagoen.

Alkate jaunak (BILDU) erantzun du esanez, printzipioz hori ez dagoela aurreikusita.

Idazkariak esan du grabatutako akta berriro entzungo duela. Hori egin ondoren, ESKAERA ETA GALDERAK atalean, "Por eso es por lo que pedimos que los contenedores no se pongan arriba...", esaten duen tokian ondorengoa esan behar du: "Por eso es por lo que pedimos que no se cambie arriba...".

Bozketa eginda, aho batez akta onartu da, aipatutako aldaketarekin.

2.- KREDITU ALDAKETA. 2 zenbakia duen kreditu gehigarrien espedientea.

Alkate jaunak (BILDU) ondorengo proposamenaren berri eman du:

"GAIA.- Kreditu Aldaketa. 2. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 2. Kreditu gehikuntzen bidez 1.118.535,24 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da."

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.5000.601.511.10.03.2012	Azp. eta urb.: Igartza Oletako parkina	20.000,00	350.000,00	370.000,00
1.5000.600.223.10.02	Azp. eta urb.: 6. Sektoreko luizia	54.234,02	460.000,00	514.234,02
1.5000.600.223.10.01	E. Lasa eta Mariarats kaleetako luiziak	31.087,87	120.535,24	151.623,11
1.5000.600.223.10.03	Gantzarain bideko luizia	0,00	56.000,00	56.000,00
1.5000.622.422.10.01	J.M. Iturriotz (Euskaltegi, EPA) lokala	0,00	65.000,00	65.000,00
1.5000.601.444.10.01	Azp. eta urb.: Bidegorriaren ardatz nagusia	275.000,00	67.000,00	342.000,00
GUZTIRA		380.321,89	1.118.535,24	1.498.857,13

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak
1.5000.600.511.10.01	Erab. Orok. Inbertsioak: Lurzoruaren erosk.	65.000,00
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko gerakina	1.053.535,24
GASTUEN GEHIKUNTZAK		1.118.535,244

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

PSE-EE/PSOeko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) adierazi du, beraiek abstenitu egingo direla. Gobernu taldeari zorionak eman dizkio, bere garaian beraiek ere erosi nahi izan zuten, eta EPA eta Euskaltegiaren artean dagoen lokala erosteko egindako saiakera eta esfortzuagatik, besteak beste, toki horietan etorkinei irakasteko aukera ematen zaielako. Eskerrak eman ditu baita ere, Gantzaraingo bidean izandako luizia konpontzea bideratzeagatik.

Bidegorriaren I. fasearekin aldiz, ez daudela ados esan du, baldin eta bizilagunekin bilera egin arte, erabakia ez bada atzeratzen, trafikoa Joan XIII kaletik pasatzeak kale horretako harresian eta bide batez eraikinetan duen eraginagatik.

Alkate jaunak (BILDU) erantzun du esanez gai honen inguruan bando bat eman duela eta prentsari ere horren berri eman zaiola argitaratu dezan. Horrezaz gain datorren astelehenean, arratsaldeko bostetan bilera bat izango dela bizilagunekin, esan du. Bilera horretan, arkitektoa eta aparejadorea, udaltzain-burua eta gobernu taldearen kideak egongo direla jakinarazi du, baina gonbitea luzatu du etorri nahi duenarentzat.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, PP, ARALAR)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin proposamena onartu egin da.

3.- ORDENANTZA FISKALAK:

- Igartza Monumentu Multzoko gelak erabiltzeagatik tarifak aldatzea 2013ko ekitaldirako.
- Internerako sarbidea duten ordenagailu eta inpresoraren erabilpenarengatik tasak ordaintzea.

Alkate jaunak (BILDU) Hazienda Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“1.- Igartza Monumentu Multzoko gelak erabiltzeagatik tarifak aldatzea 2013ko ekitaldirako, tasa kontzeptuan ondorengo kopuruak ezarriz:

- Ermita erabiltzea 100 €
- Jauregiko gelak erabiltzea:
 - Areto nagusia 300 €
 - Erakusketa aretoa 100 €
 - Batzar aretoa 200 €

Bilera gela 100 €

- Jauregia osorik erabiltzea:

Egun erdia..... 400 €

Egun osoa 700 €

2 egun1.000 €

- Burdinola erabiltzea:

Burdinola 200 €

Burdinola-hiletak 50 €

- Areto guztiak erabiltzea:

Egun erdia 700 €

Egun osoa1.100 €

2 egun1.300 €

Gelen erabilpenarengatik tasetan ez dago barne kafetegi edota catering zerbitzuaren kostua.

2.- Ondorengo tasak ezarteza interneterako sarbidea duten ordenagailu eta inpresoraren erabilpenarengatik:

Hasta 15' 0 €

De 15' a 60' 0,50 €

Por cada hoja impresa 0,10 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- INBENTARIOA. 2012ko abenduaren 31ko eraginarekin inbentarioa eguneratzea.

Alkatea jaunak (BILDU), Hazienda Batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du, adieraziz aldaketa, gehienbat 8. sektoreko urbanizaziogatik eta udaltzainen ibilgailua erosteagatik izan dela:

"2.012ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren zuzenketa onartzea proposatzen dio Hazienda Batzordeak Udalbatzari:

UDALA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	55.704.922,79 €	4.956.441,58 €	50.748.481,21 €
ERAIKUNTZAK	19.201.357,63 €	4.414.326,39 €	14.787.031,24 €
TERRENOAK	6.082.773,50 €		6.082.773,50 €

JOLASTOKIAK	4.800.881,05 €		4.800.881,05 €
BIALAK	23.699.432,87 €		23.699.432,87 €
LANDA FINKAK	30.343,61 €		30.343,61 €
AZPIEGITURA	1.890.134,13 €	542.115,19 €	1.348.018,94 €
ERRENTA ESKUBIDEAK	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK	11.608.709,22 €		11.608.709,22 €
IBILGAILUAK	182.420,39 €	78.055,64 €	104.364,75 €
MOBLERIA	2.693.247,63 €	1.997.007,86 €	696.239,77 €
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR.	1.093.027,00 €	6.521,42 €	1.086.505,58 €
GUZTIRA	72.533.735,26 €	7.038.026,50 €	65.495.708,76 €
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN	4.219.461,67 €		4.219.461,67 €
LAGAPENEAN JASOTAKO ERAIK.	343.677,54 €	27.483,20 €	316.194,34 €
	77.096.874,47 €	7.065.509,70 €	70.031.364,77 €

KIROLDEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	71.918,99 €	16.358,67 €	55.560,32 €
BALORE MOBILIARIOAK	100,00 €		100,00 €
GUZTIRA	72.018,99 €	16.358,67 €	55.660,32 €

MUSIKA ESKOLA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	130.632,94 €	102.205,93 €	28.407,21 €
GUZTIRA	130.632,94 €	102.205,93 €	28.407,21 €

EUSKALTEGIA

	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Neto Kontablea
MOBLERIA	70.976,19 €	58.940,79 €	12.035,40 €
GUZTIRA	70.976,19 €	58.940,79 €	12.035,40 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "2012ko uztailean prentsa-aurrekoa eman zen eta bertan jakinarazi zen gerra zibilean fusilatutakoen oroimenez eskultura bat egingo zela eta finantzatzeko bono batzuk aterako zirela. Kontutan izanik eskultura horren

kostua, 50.000 €koa izan dela, galdetu du ea zein batzordeetan tratatu den gaia eta gastu horietan udal pertsonalaren kostua aurreikusita dagoen.

Alkate jaunak (BILDU) erantzun du esanez, gastua 41.000 € ingurukoa dela eta Kultura Departamentutik Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu zaiola, baina oraindik ez dela ezagutzen dirulaguntza hori jaso behar den ala ez. Bonoen dirua ere jasoko dela dio, baina horretarako fusilatuen memoria gordetzeko sortu den taldearekin hitzarmena sinatu behar dela dio.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) ihardetsi dio esanez bonoena ez bada gauzatzen, azkenean Udalak ordainduko duela guztia eta horrelako erabakiak hartzeko osasuntsua dela gaiak batzordeetatik pasatzea eta hau da, hain zuzen ere, egin duen proposamena.

Alkatea jauna ados azaldu da, Aitor Aldasoro jaunak proposatutakoarekin. Oker ez banago, esan du, fusilatuen elkarte talde guztiekin harremanetan jarri da informazioa zabaltzeko. Bere ustetan, Udala, tresna bat besterik ez da izan.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du, nolabait ere Udalak hartu duela ordaintzeko erabakia, kostua zein modutan estaltzeko zalantzak zeudelako, baina horren berri informaziorik ez dutela izan, adierazi du.

Alkatea jaunak (BILDU) gogoratu du mozio bat onartu zela, baina gastua igo egin dela.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Hasierako zenbakiak bikoiztu egin dira.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Los datos finales todavía no los tenemos. Se os informará cuando tengamos todos los datos.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si pero entonces hablaremos de hechos consumados y lo cierto es que ya se ha adoptado una decisión y nosotros no sabemos nada.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “De todos es conocido que desde un tiempo atrás se están tomando decisiones en torno a este tema. Ahora venir a escindir que este gobierno es opaco, no viene a cuento.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da 2012ko abenduaren 31ko eraginarekin inbentarioa onartzea.

5.- EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEARI BURUZKO OINARRIAK. Oinarrien aldatetari hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak (BILDU) euskara eta kulturako batzordearen proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK:

1. 2012ko martxoaren 14ko kultura eta euskara batzordean, euskara ikasteko diru-laguntzen oinarrietan ondorengo aldaketa onartu zen
 - a) HABEK homologatutako ikastaro guztietan %60ko laguntza ematea.
 - b) Gutxienez, euskalduntzeko urrats bat edo alfabetatzen ikastaroetako bat (alfa 1 edo alfa 2) gainditzea. Euskalduntzeko 01-08 bitarteko urratsetan ez da lehendik diruz lagundutako urratsik lagunduko; aldiz, 09-12 arteko urratsetan, gehienez ere, aurrez lagundutako bi urrats beste behin laguntzeko aukera eskainiko da; kasu bietan ikaslearen azken bost ikasturteetako ikas prozesua hartuko da kontuan. Alfabetatze ikastaroei dagokienez, alfa 1 eta alfa 2, bakoitza bi aldiz laguntzeko aukera eskainiko da.
 - c) Eskatzaileek Udalarekin inolako zorrik ez izatea.
 - d) Udalaren 2012ko aurrekontuko kontu-sailean finkatutako kopurua erabiliko da, hau da, 3.601,84€, eta kopuru hori diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko da. aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz ez da inolaz ere, handituko.
 - e) Indarrean dauden oinarrietan aurrean aipatu diren aldaketak txertatzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean berrargitaratzea.
2. 2012ko ekainaren 7an Beasaingo Udalbatza k“ Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak emateko oinarrien aldaketak” onetsi zituen eta 2012ko irailaren 24an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
3. 2013aren martxoaren 6an AEKk, Beasaingo euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak emateko oinarrietan, ondorengo moldaketak proposatu dizkio Beasaingo Udalari:

4.art- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

c) Ikastaroaren bukaeran, euskaltegiaren txosten bat jasotzea, non adieraziko den aprobetxamendu egokia egin diola ikasleak ikastaroari.

8. art- ESKABIDEEN AURKEZPENA

Eskatzaileak ikastaroa/ak amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskaera:

- △ Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), uztailean.
- △ Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), urrian.

9.art- DIRU LAGUNTZEN ORDAINKETA

Diru-laguntza guztiak ordainketa bakarrean ordainduko dira banku transferentzia bidez, diru-laguntzako xede den ikastaro-aldia amaitu eta hiru hilabeteko epean.

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.

- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.

ARRAZOIAK:

I.- 4. Artikulua aldatzeko egindako iradokizuna.

Oinarrien filosofia ez da euskara ikasten ibiltzea eta horretarako euskaltegi batera joatea, baizik eta gutxieneko euskara maila bat lortzea eta hain zuzen ere, ikaslearen ahaleginari aitortza egitea.

Horretarako objetiboki neurtu daitekeen instrumentu bakarra euskalduntzearen edota alfabetatzearen urratsa gainditzea izango litzateke, euskaltegiak berak ziurtatzen duena, alegia.

Euskaltegiaren txostena (Q87) bestela ere, aurkeztu beharrean dago ikaslea. Esatea ikasleak urratsa ez duela gainditu, baina aldi berean aprobetxamendu ona izan duela kontraesana da eta uler daiteke diru-laguntza lortzeko helburu bakarrarekin egiten dela eta ez luke ikasleak egindako benetako ahalegina kontuan izango.

Ikasle orori diru kopuru berdina emateko arriskua egongo litzateke eta diru-laguntzak duen izaera finalista ez litzateke beteko.

II.- 8. eta 9. artikuluei egindako iradokizunak

8. eta 9. artikuluei egindako iradokizunak, aldiz, onartzea bidezkoa ikusten da, baina onarpen honek ordenantzaren aldaketa ekarriko luke eta aldaketa hori onartzea Udalbatzari dagokio.

Honen ondorioz, Euskara eta Kultura Batzordeak ondorengo proposamena egiten du, behar den organoak onar dezan:

Lehenik. AEKk 4. artikuluari egindako aldaketari buruzko iradokizuna ez onartzea, goian aipatutako arrazoiengatik eta Alkateari jakinarazpena egiteko eskaera egitea.

Bigarren. AEKk 8. eta 9. artikuluei buruzko aldaketak onartzea.

Hirugarren. Udalbatza Osoari eskatzea " Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak" emateko ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea, hau da:

8. artikuluan, "Eskatzaileak ikastaroak (urria-iraila bitartekoak) amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskaera" esaten duen lekuan, ondorengo esatea:

Eskatzaileak ikastaroa/ak amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskaera:

- ▲ Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), uztailean egin beharko du eskaera.
- ▲ Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), urrian egin beharko du eskaera.

9. artikuluan "Diru-laguntza guztiak ordainketa bakarrean ordainduko dira banku transferentzia bidez, diru-laguntzako xede den ikastaroa/ak (urria-iraila bitartekoak)

amaitu eta hiru hilabeteko epean" esaten den lekuan, ondorengo esatea:

Diru-laguntza guztiak ordainketa bakarrean ordainduko dira banku transferentzia

bidez, diru-laguntzako xede den ikastaro aldia amaitu eta hiru hilabeteko epean

- △ Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.*
- △ Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo proposamena onartu da:

Primero. Aprobar inicialmente la modificación de los artículos 8 y 9 de las bases para la concesión de ayudas a los ciudadanos que estudian euskera en los Euskaltegis.

Segundo. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 56 del R.D.L. 781/1986, de 18 de abril, y en el art. 49 de L.R.B.R.L. se somete a información pública por el plazo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias. Si en el referido plazo no se presenta ninguna alegación, se entenderá que queda aprobada definitivamente.

6.- LIBURUTEGIAN ORDENAGAILUAK ERABILTZEKO ARAUDIA.
Hasierako onespina.

Alkate jaunak (BILDU) euskara eta kulturako batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo Udal Bibliotekan Interneterako sarbidea duten ordenagailuak erabiltzeko araudia

AURREKARIAK:

- I. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan dauden liburutegietako titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei edo Udal Liburutegi publikoak kudeatzeko eskudun diren toki-erakundeei beren liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren 2012ko ekainaren 12ko Aginduak.*
- II. Horren babesean, diru-laguntza eskaera egin zen, 2.172€koa eta 2012ko abenduaren 7ko Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenean Beasaingo udalari emandako diru-laguntza jasotzen da, aipatutako kopurua, hain zuzen.*
- III. Hori dela eta, udal Liburutegiko erabiltzaileen informatika zerbitzuaren eskaerari erantzuteko 2 ordenagailu jarri dira eta erabiltzaileen eskura jarri aurretik, ordenagailu horien erabilera aratzeko ordenantza landu da.*

Horren ondorioz, Kultura eta Euskara batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egin dio:

Lehena.- Beasaingo udal Bibliotekan Interneterako sarbidea duten ordenagailuak erabiltzeko araudiari hasierako onespena ematea.

Bigarrena.- 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Aipatutako epean inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako onespene erabakia behin-betiko erabaki bihurtuko litzateke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7.- MOZIOA. Talde sozialistak aurkeztutako mozioa, “Gesto por la Paz”i buruz.

Alkatea jaunak talde sozialistako bozeramaileari hitza eman dio eta honek “Gesto por la Paz” en mozioa irakurri du:

“Hace 28 años y tras más de dos décadas de violencia continuada, Gesto por la Paz supo entender la existencia de miles de ciudadanos y ciudadanas que necesitaban un cauce no partidista para expresar públicamente unas convicciones basadas en un sentimiento de rechazo frontal a esa violencia. En ese sentido fueron artífices de la ruptura de una cierta “cobardía” civil que provocaba que muchos ciudadanos –que estaban contra la violencia– se atrevieran a exteriorizar ese rechazo. Su constancia, su seriedad, su firmeza democrática en la defensa de unos valores, se ganaron día a día el respeto de la sociedad vasca.

Tras casi tres décadas de lucha contra la violencia, a favor de la defensa y respeto a los derechos humanos y de la cultura de paz, así como el reconocimiento de todas las víctimas del terrorismo, y ante el nuevo tiempo abierto en Euskadi de consolidación de la paz y de la convivencia, tras el cese de la actividad terrorista de ETA el 20 de octubre del 2011, el pasado 6 de mayo adoptaron la decisión de disolver la organización.

Atrás quedarán los años de trabajo casi en soledad, cuando apenas contaban con gente para sujetar sus pancartas, y muy pocas eran las personas que respaldaban este movimiento ciudadano, cargado de una extraordinaria dosis de valor y compromiso con la sociedad. Unos años y una labor que, en absoluto, podemos dejar caer en el olvido.

Es esta una propuesta de indudable e importante trascendencia, que pretende la exigencia del reconocimiento institucional al más alto nivel por el Pleno del Ayuntamiento a todas aquellas personas –ciudadanos y ciudadanas anónimos– que, desde esta organización ciudadana, han trabajado y luchado por la consecución de un escenario de ausencia de violencia terrorista en Euskadi.

Es por todo ello que entendemos necesario la realización de un reconocimiento público por parte de este Ayuntamiento a favor de la labor de gesto por la paz del

mismo modo que entendemos necesaria la organización de iniciativas que divulguen y promuevan los principios que basaron la creación de esta organización pacifista.

Queremos resaltar también la base ética sobre la que Gesto por la Paz basó su labor y trabajo, una base ética en la que la construcción de nuestro futuro como sociedad democrática se basa en la necesidad de asumir la deslegitimación de la violencia, el rechazo a cualquier justificación o disculpa de ésta relacionándola con el contexto social o político.

Debemos construir una memoria viva, plural y compartida, siempre desde el respeto a las víctimas, que sea relevante para las generaciones venideras y sirva para construir el futuro.

Por todo ello presentamos la moción, con los siguientes puntos para su aprobación:

- 1- El Ayuntamiento de Beasain reconoce y agradece la labor desempeñada por Gesto por la Paz a favor de la paz, el respeto a los derechos humanos, y la lucha contra la violencia y el terrorismo.*
- 2- El Ayuntamiento de Beasain exige a todas las instituciones y a la sociedad en general, a construir una memoria pública que reconozca a todas las víctimas del terrorismo y la violencia y en el que se incluyan las verdades de todas esas víctimas que sufrieron la vulneración de sus derechos fundamentales.*
- 3- El Ayuntamiento de Beasain solicita a las instituciones vascas, que promuevan la difusión y formación en la cultura de paz, la deslegitimación de la violencia, y el reconocimiento de las víctimas del terrorismo y de la violencia.*
- 4- El Ayuntamiento de Beasain remitirá la siguiente moción a las Juntas Generales de Gipuzkoa, Diputación, Parlamento y Gobierno Vasco, así como al Congreso, Senado y Gobierno del Estado.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Manifiesto mi adhesión a “Gesto por la Paz” y a las instituciones que la han apoyado, por todos estos años de lucha a favor de las víctimas de ETA. Estoy a favor de la moción.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Lehenik eta behin esango dugu bakearen aldeko lanean diharduten erakundeen lanaren aitorpenarekin bat egiten dugula inolako zalantzarik Gabe, eta kasu honetan desagertzea erabaki duen Gesto Por la Paz-en lana zintzoa eta eskuzabala izan dela pentsatzen dugu.

Hori esanda, urteetako konfrontazioaren ondorioz bakearen izenean kutsu politikoa duten hainbat ñabardura geratu dira bidean, borondate on eta jarrera emankorraren parean geratu direnak.

Zentzu honetan egin diren eta oraindik egiten diren hainbat azterketekin gure desadostasuna erakutsi nahi dugu, besteak beste bakea ETAREN desagertze hutsarekin lotzen dena. ETAK armak behin betirako utzi zituela bi urte beteko dira aurten, baina bake eskenatokitik urrun gaude, sufrimenduak jarraitzen du eta bidegabeko egoerak muturreraino eramaten dira. Azken hilabeteetan bi euskal preso kartzelan hil dira, dozenatik gora dira larri gaixo egonagatik ziegetan itzaltzen ari direnak, milaka kilometro egiten dira astero errepedeetan mendeku hutsagatik.

Bakeaz hitz eginda, biktimaz hitz egin behar da, sufrimenduaz, erreparazioaz, baina gatazkaren alde guztiak kontutan hartuta. Horretan puntu ilun bat egon da guztion aldetik, bakoitza bere errealitatera begira egon garela aitortu behar dugu, besteen sufrimenduaz ohartu gabe. Muturreko konfrontazio politikoak giza eskubideen defentsa objektiboa kaltetu du eta ondorioz errealitate partzialak modu absolutuan azaldu izan dira.

Alderdi sozialistak aurkezten duen mozioan aipatzen ditugun argi ilunak azaltzen direnez, gure aldeko botoa ezinezkoa egiten du. Hala ere aipatu ditugun baloreen errekonozimenduari zor, ez dugu mozioaren onarpena oztopatuko.”

Besterik ezean, mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (BILDU, ARALAR)

Horren ondorioz, “Gesto por la Paz” en mozioa gehiengo absolutuarekin onartu da.

8.- FINANTZA IRAUNKORTASUNA. Kontuhartzailearen txostena azaltzea.

Kontuhartzaileak finantza iraunkortasunari buruz emandako txostenaren berri eman da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Badirudi Beasain Lantzeneko kontuak ez dutela egonkortasunik eta Plan Ekonomikoa beharko litzatekeela. Hori horrela bada eta egonkortasunari begira, txostena emateko eskatzen dugu, kontutan izanda pabiloiaren erabilpen-lagapenak, Beasain Lantzenek duen eta aldekoa ez den egoera ekonomikoa areagotu egingo duela.”

Alkate jaunak (BILDU): “Eskatu, mesedez idatziz, zehazki zer nahi dezuten.”

Aitor Aldasoro jaunak eskatuko duela esan du.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “2012. ekitaldiaren likidazioaren arabera, VI. Kapituluaren aurreikusita zeuden bi milioetatik, milioia eta piko gastatzeari utzi zaio. Esan liteke aurrekontuaren kudeaketan geldialdia egon dela. Egia da lizitatutako proiektuetan %49ko bajak eman direla. Hori dela eta proiektuak egiterakoan zorrotzagoak izatea eskatuko genuke. 300.000 € diruzaintzako gerakinera joango da. Proiektuak landuta egon beharko lirateke eta esleipenetan aurrezten denean, proiektu horiek exekutatu.

Aurten isunetan 264.819 €ko eskubide onartu dira eta egindako aurreikuspena, aldiz, 110.000 €koa izan zen. Horrek zalantzak sortzen ditu aurrekontua egiten den zorrotasunarekiko, kontutan izanik 2013. ekitaldirako ere 100.000 € aurreikusten direla.

Alkate jaunak esan du isunak jaisten joango direla, jendeak oineztatuta dauden kaleetan segurtasun kamerekin funtzionatzen ikasi duelako. Hori espero denez, aurrekontuetan diru sarrerak txikiagoak aurreikusten direla dio. Lehen ere leporatu zeniguten, esan du, Foru Fondoa aurreikusterako garaian zuhurtasun gehiekirekin jokatzeko ari ginela eta agian, horrela izango zen baina denborak arrazoia eman digu. Isunak, aurreikusitakoak baino altuagoak izatea, ordea, ez dela errealia dio, zeren eta kobratzen dena askoz ere gutxiagoa da.

VI. kapituluan, berriz, %62a konprometitu zegoenari %30eko bajak gehitu behar zaizkiola azaldu du. Horren ondorioz, aurten bezalako ezustekoak gertatzen direnean oso ondo etortzen direla baieztatu du, adibidez luiziek 700.000 € inguru gastatu beharko direla dio.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bai, baina aurten ere berdin gertatuko da. Proiektu gehiago landu beharko lirateke eta urtean bertan garatzen saiatu.”

Udalbiltzarako aurreikusita zeuden 11.000 € ez dira gastatu. Aldiz, Udalbiderako zegoena bai. Guk eskatzen duguna da, 2012ko likidazioaren soberakinetik langabetuentzako formakuntza ikastaroak egiteko zerbait erabiltzea.

Bestalde esan, eskualderako plana, erdara hutsean pasatu zaigula informazioa.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Udalbideri eman zitzaion, baina Udalbiltzak zoritxarrez ez du jasotzeko aukerarik izan, dokumentazioa behar den moduan aurkeztu ez duelako.

Formakuntza ikastaroei buruz esan, laugarren aldia dela plenoan gai hau aipatzen dena. Aurrekontuetan ere ezezkoa eman zitzaion.

Eskualderako plana. Guri ere oraindik ez zaigu inolako informaziorik iritsi. Izaten dugunean aztertuko dugu. Dena dela, hizkuntzari buruz adierazi, plan hori GOIEKik egin duela eta ez guk.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) esan du berak GOIEKiri zerbait eskatzen dionean berehala pasatzen diotela eta berari pasatzen badie, beraiei ez diela emateko ukorik egingo, baina borondatea ere behar dela informazioa jaso ahal izateko.

Alkatea jaunak (BILDU): "Nik ez dut hori esan. Plana eskualdekoa da eta ikastaroak bailarakoentzat Martxan dago."

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) galdetu du ea Udalaren kontuetatik ordaindu behar den

Alkatea jaunak (BILDU): "Nori tokatzen zaion aztertu behar da."

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2013ko martxoaren 4tik 2013ko maiatzaren 18rarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira 2013ko martxoaren 4tik 2013ko maiatzaren 18rarte emandako Ebazpenak.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

BERDINTASUN TEKNIKARIA

Josi Insausti jaunak (H1): "Cuando se contrató el técnico de igualdad éramos conocedores de que no se podía hacer un contrato más allá de los ocho meses. El 31 de mayo acaba el contrato de esta persona que a nuestro entender ha hecho un muy buen trabajo, ya que entre otros logros, hay que mencionar el "foro de igualdad". Qué pasa a partir del 31 de mayo?. Nos quedamos con el trabajo que se ha hecho, con los grupos que se han interesado en este ámbito y qué...?. Desde enero la comisión que se ocupa de este tema no se ha reunido y yo creo que ha habido tiempo para analizarlo. Qué objetivos tiene el equipo de gobierno en el ámbito de la igualdad a partir de ahora?. Se nos ha convocado para el 27 de mayo, pero andamos tarde."

Zezenia Herrador andreak (BILDU): "Gure asmoa maiatzaren 31tik aurrera zerbitzuarekin jarraitzea da eta jende berri erakartzea. Aztertzen ari gara nola egin. Agian, berandu da baina ari gara."

Josi Insausti jaunak (H1): "Aurrekontuan ez dugu horretarako kontusailik. Aldaketaren bat egin beharko da eta horrek berriro ere kreditu aldaketa eskatzen du."

Zezenia Herrador andreak (BILDU): "Agian pertsonalaren kapituluan kreditua egongo da."

Alkate jaunak (BILDU): "Aztertzen ari gara nola egin, jakinda enplegurako eskaintza publikoa ezin dela atera."

Josi Insausti jaunak (H1): "Bitarte horretan etena sortuko da."

Publikoan dagoen pertsona batek: “Zerbitzua moztea, benetako egurra ematea da. Asko kosta zaigu jendea erakartzea eta eteten bada, jende askok atzera egingo du.”

Zeilia Herrador andreak (BILDU): “Ikusita eskaera dagoela, agian beste ikuspuntu batetik aztertu beharko dugu.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Etetea ez da gure kapritxoa. Lan kontratua egiteko Rajoy-en Dekretuarekin topo egiten dugu.”

Publikoan dagoen pertsona berak: “Bidea egin dugun bezala, atzera pausoa emango dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beste kasu batzuetan, adibidez, hirigintza-aholkularitza eta komunikazio-zerbitzuarekin, soluzioa bilatu da. Ezin da horrela egin?.”

Alkate jaunak (BILDU): “Kontratua legeztatu arte, azken aldizkaria aterako dugu, baina gehiagorik ez. Hirigintza-aholkularitzari buruz, berriz, esan, zuek ere urte askotan gu orain gauden modu berdinean egon zinetela. Berdintasun teknikariarekin ere, agian legearekin talka egin dezakeen formula bera erabiltzea izango litzateke irtenbideetako bat.”

Josi Insausti jaunak (HI): “!Koldo hori zuk Alkatea izanik hori proposatzea.....!

IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA KUDEATZEKO KONTRATUA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Igartzako monumentu-multzoa kudeatzeko sinatutako hitzarmenarekiko esan, Idazkariak aurkako txostena egin zuela, lehen zegoenaren kontratuarekiko egindako aldaketak funtsezkoak direlako. Aldaketa horiek proposatzeko planen bat egin da?.”

Alkate jaunak (BILDU): “Zerbitzua emateagatik bi aldiz kobratzen zuen. Udalak kontrol gehiago izan nahi du. Neurria hartzen ari gara.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Udalak 365 egunetan kudeatuko du eta Igartzako web orritaz ere Udala arduratuko da. Beste ikuttu bat eman nahi diogu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bi aldiz kobratzen bazuen, non egon zarete ez salatzeke?.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Nik ez dut esan bi aldiz kobratzen zuenik, gauza berdina egiteagatik.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Lehengo kontratuak bi urteko epea zuen, baina froga modura egin zen. Orain jokatu den eran, zer gertatuko da kontratua bideragarria ez bada eta egikaritzeko epea amaitu baino lehen uzten badu?. Udalak egin behar du guztia.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Hori gertatzen bada, aztertuko dugu zer egin.”

OLARANGO ERAIKINA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Olarango eraikina egoera kaxkarrean dago. Galdetzen dugunean zerbait pentsatu duzuen, behin eta berriz esaten duzue lantzen ari zaretela, baina inoiz ez duzue inolako proposamenik aurkezten.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ez genuen esan proposamenik egin behar genuenik. Pentsatzen ari gara. Lanketa bat egitea gustatuko litzaikuge, baina badaude beste proiektu batzuk guretzat lehentasuna dutenak.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Orain da garaia eta momentu aproposa gaiak lantzeko eta proiektuak egiteko.”

JOAN XIII KALEKO ARAZOA

Publikoan dagoen pertsona batek bidegorriaren I. fasea egiteak ekarriko duen trafikoa Joan XXIII kaletik bideratzeari buruz, eskatu du datorren astelehenean gai honi buruz dagoen bilerara, kale horretako hesiarekiko dauden txosten guztiak eramateko. Aldi berean eskatu du bilera horretan lehen zegoen arkitektura taldekoak egotea, beraiek horretaz zerbait dakitelako.

Galdetu du ea zer gertatu den J. M. Iturriotz eta Joan XIII kaleen arteko igogailuarekin. Zer pasatu den diruarekin eta proiektuarekin.”

Alkate jaunak (BILDU) erantzun dio esanez igogailu horren kostuaren portzentaia bat promotoreak ordaindu behar duela eta beste portzentaia bat Udalak. Momentuz ez da egingo sustatzaileak orain ez duelako eraiki behar eta horren ondorioz urbanizazio obrak ere ez dituelako egin behar.

Behar dituen dokumentuak ere idatziz eskatzeko esan dio.

Publikoan dagoen pertsona berak, inguru hori aintzakotzat hartzea eskatu dio gobernu taldeari. Bere ustetan TOLEDO TALDEAREN txostenak daude, gai honi buruz aurreko Korporazioarekin gai honi buruz bilduta egin zirelako.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

